

Garai berriak

Antton Izagirre

Hauteskunde ondorengo gobernu eraketek irudi eta joera berri-tzaileak erakutsi dizkigute, orain gutxi arte ia pentsaezinak zirenak. Ez gara aniztasunak ekarri di-tuen ikusmolde berriez soilik ari, haien artean eman den zeharkakotasunaz bai-zik, eta horrek guztiak euskal lurraldeeta-ko mapa politikoan ekarri dituen berri-kuntzez.

PNV-PSE hitzarmen zaharkitutik hara-go, Nafarroako udal eta Foru Gobernura-ko eman den zeharkakotasunak edota Gasteizko Udalerako eman denak argiro erakusten dute alderdien muga itxi eta zurrunak hausteko eginak izan zirela, eta

hala egin dutenean, jendarteak esker onez hartzeaz gain, beren botoaren zen-tzua beteta sumatu duela. Izan ere, elkar aurkitze horiek etorkizun berriak eraiki-tzeko abaguneak ekarri dituzte.

Uste duzue inork kritika lezakeela EH Bilduk EAJri emandako alkatetza edo ez-kerreko beste alderdiek, PSEren epelke-riaren aurrean, PNVri babesa eskaini iza-na Gasteizen? Uste al duzue Andoainen EAJko kide batek EH Bilduren alkatetza ahalbidetu izana, interesatuetatik hara-go, inork okertzat eman dezakeenik?

Orain eman diren mugimendu hauek guztiek epe ertainerako ere politikagin-tzaren molde berriak iragartzen dituzte,

eta garai berrietarako politikagintza mol-deak errotik aldatzera etorri diren ustea oso hedatua dago.

Hala eta guztiz ere, zuhurtasun handiz hartu behar dugu abaguneak eskaintzen digun parada berria. Ezin dugu ahaztu, alderdiek martxan jarriko dituzten poli-tikek herritarren borondatean eragiten dutela sinesten dugun arren, hauteskun-deak ez dituztela beti alderdiek irabaz-ten, komunikabideen marketin politikak baizik. Gipuzkoan “Diario Vasco”-k egin-dako komunikazio politika horren lekuko argiena, zein komunikabideetan gailen-tzen ari den kode profesionala sostenga-tzen duen ideologiarena den. Ez ahaztu! •

Galdu ditugun gauzen artean

Naiara Garzia

San Joan eguna jaiotzeko data polita da. Naturari apenas erreparatu ga-be bizi garen garai hauetan, suaren gainetik salto egitea da tinko man-tentzen den ohitura bakarrenetarikoa. Neurri batean naturarekin bat egiten du-gun egun honetan, ordea, lehenago gure ahaideek zituzten hainbat ohitura galdu egin ditugu: ez ditugu dagoeneko bela-rrak jasotzen, urtean zehar ekaitza dagoe-nean gure etxea babestu dezaten. Antza denez, XXI. mendean ekaitzek ez digute beldurrik ematen. Beste batzuek ez garel

hain superstiziosoak esango dute, eta bes-te zenbaitek gure arbasoek naturarekin zuten harremana galdu dugula eta bidean beste gauza asko ere galdu ditugula.

Gure aitona-amonentzat ekinozioak be-ti izan ziren garrantzitsuak. Ekinozioak eta hauen esanahia. Eta naturarekin zuten harremana. Neguko ekinozioan, esatera-ko, mihura jasotzen zuten eta honek zorte txarretik babesten gintuen, istripu txikie-tatik. Gauza txiki hauek dira gure arbaso-en erlijiotik gustatzen zaizkidanak, natura bera aintzat hartzea, bere erritmoeekin. Al-

derdi honetan umezurtz xamar gaudela esango nuke.

Galdu ditugun gauzen arten, lasaitasu-na da horietako bat ezbairik gabe. Virgi-nia Woolf (1882-1941) idazleak bere saia-kera batean esandakoa aipatuko dut buruz: bere garaian gizartea aldatzen ari zela esan zuen eta gizakiak jada ez zuela lehen bezain lasai lo egiten. Lehenago ukuiluan lehortzen ari zen belarrez bete-tako saski batek bezala egiten zuela lo. Eta orain, ia mende bat beranduago, nola egiten dugu lo? •